

## *Stockholm, Karolinska Ospitalea, 1993ko martxoaren 27a*

— — —

Haur jaioberria sehaskan dago, biluzik. Maindirearen gainean etzanda, geldi-geldi, zango-besoak zabaldurik. Errenditu behar balu bezala.

S. haren hatz eta azazkal ttikiei begira dago. Haurrak alde batera okertua du burua. Lo dago; ametsetan, edoskitzeko keinua egiten du bere ezpain txikiekin, eta begiak etengabe mugitzen ditu bere betazal ia gardenen azpian. Betile luze eta ilunak dauzka. Ile ugaria eta beltza, izerditan bustia. Azkar hartzen du arnasa, erritmikoki. Sabeltxoa mugitzen zaio, gora eta behera, gora eta behera. Gaza zati dardarati bat dauka zilbor-hestearen korapiloan. Ia ubelduak ditu belaun aldeko larruazal lehorra eta garondoko zimurrak. Hankazpiak gora begira dauzka, hantxe tinko geldi.

Zeharka begiratzen dionean, S.-ri iruditzen zaio hilik dagoela, eta laster batean baztertzen du begirada.

Beraren semea omen da. Arratsaldean erditu da, Stockholmeko Karolinska Ospitalean. Berarentzat, baina, izenik gabeko izaki bat besterik ez da, bederatzi hilabeteren buruan beraren gorputzetik aterea. Ez dute beste loturarik. Lasaitu da hori pentsatzean. Libre da. Haur horrekin batera, iragan guztia kanporatu du bere gorputzetik. Arinduta sentitzen da, ohetik altxatu eta berehalako batean alde egiteko moduan balego bezala.

\*\*\*

Ez dago bakarrik gelan. Maj dauka ondoko ohean. Begira-begira daukalarik, esan dio: «Maj dut izena». S.-k ez dio erantzun. Maj titia ematen ari zaio bere alabari. Bular zuri mardulak ditu,

eta, titiburua hauraren ahoaren kontra zanpatzen duelarik, irudi du itoko duela. Aldian-aldian, haurrak bularretik baztertzen du ahoa; besoak furfuriaka astindu, eta muzinka hasten da. Orduan, Majek sorbalda gainean hartzen du, irribarrez, S.-ri begira. Berak ez dio irribarrerik itzultzen. Pentsatzen du bizitza arras desberdinak dituztela. Maj bere herrian dago. S. Bosniatik etorria da, eta hori herririk ez izatea bezala da. Majen haurrak –neskato bat– badu izena. Britt. Segur aski, aita ere izango du: izen-deitura, lanbide, begi-kolore eta ohitura ezaguneko aita bat. Denetarik badu haren alabak: ama, aita, hizkuntza, herria, segurtasuna. S.-k munduratu duen gorputz txikiak ez du halakorik batere.

\*\*\*

S.-k ez du izakia besoetan hartzen. Ez du ukitu nahi. Iruditzen zaio behin bakarrik laztanduta ere halako erantzukizun bat erantsiko zaiola. Katakume abandonatu bat aurkitzen duzunean bezala. Hartzen ez baduzu, ez dizu piztuko inongo sentimendurik. Behin magalean bilduz gero, ordea, akabo.

S.-k higuina besterik ez dio izaki horri. Haurdun zegoela jakin zuenean, heriotza etorri zitzaion burura lehenbizian. Haurra heriotzara kondenatuta egon da hasieratik. Haurdun zegoela jakin zuenerako, berandu zen abortatzeko, eta horri esker iraun du haurrak bizirik. Haurdunaldia nahitaez azken bururaino eraman behar zuela jakinda bizi izan da azken hilabeteetan. Sabel haziak ia ez ezagutzeko moduan jartzeraino desitxuratu zuen, bere gorputza gorrotatzera behartu.

\*\*\*

Goizean, gosaltzeko denboran, min erdiragarri bat sumatu zuen sabelaldean, halako ziztako bat. Ez zen, ordea, erdiminen beldur; haien irrikaz zegoen. Zama hartatik libratzeko irrikaz. Ohitua zegoen kulata-kolpeek eragindako minera, zaplaztekoetara, lepoa soka batez estuturik itolarria sentitzera, burua hormaren kontra jo ondoko minsorrera, bularren kontrako bota-ostikoen oinazera.

Eta konortea galarazten duen minera, gorputz batek beste gorputz bati eragiten dion minera, besteren sufrimenduak dakarren minera. Eta, azkenik, minik ematen ez duen minera, norbera baino handiagoa denez, norbera irensten duenez.

Erdiminak hastearekin, halako lasaitu bat hartu zuen. Azken hilabeteetan, landare bat balitz bezala bizi izan zen, lozorroan, erditu zain. Mina zerbait egiazkoa zen; ez oharkabean gertatzen zitzaion zerbait, baizik eta existitzen zela oroitarazten zion zerbait.

\*\*\*

Uzkurdurek erraiak urratzen zizkioten bitartean, S.-k bere bu-ruari esaten zion beste pixka batean eutsi behar ziola, beste pixka batean bakarrik. Bere barrendik kanporatuko zuen izaki hori. Bizitza aldatuko zitzaion. 1992ko uda ahaztuko zuen, ahaztu, ahaztu... Erizainak zerbait esan zion, erlaxatzeko edo bultza egiteko akaso, baina S.-ri bost axola dena. Ez zuen deus entzuten. Erizainak ezin zion lagundu. Egia esan, zalantza egiten zuen ba ote zen munduan inor lagundu ziezaiokeenik.

Orduan, medikuak, S.-ren aurrean makurtu, eta aurpegia ukitu zion. «Bukatu da», esan zion. Esku samur bat, aspaldiko partez. Orduantxe baretu zen, eta negarrez hasi. Malkoekin batera isuri zitzaion barnean pilaturiko mina, emeki-emeki. Bere zango zabaldu dardaratien arteko odol-jarioarekin batera.

\*\*\*

Eta, orduan, bakea. Jada ez zuen minik. Erizainak esnatu zuen lo-kamutsetik: haurra zekarkion, buruz behera, orkatiletatik helduta. Betertzez ikusi zuen gorputz txiki odoldua. Ez zuen zirkinik ere egiten, eta S.-ri bururatu zitzaion beharbada beraren ametsa bete eta hilik jaio izango zela. Orduantxe entzun zuen haren negarra. Beste alderantz okertu zuen burua. Haur haren negarra ez zitzaion batere axola. Haur hark ez zuen jada zerikusirik berarekin.

\*\*\*

Erditu aurretik ere esana zien ez zuela haurra ikusi nahi. G.-k, hark lagundu baitzion ospitalera, behin baino gehiagotan errepikatu zien S.-k eskaturikoa, eta oharra zintzoki jaso zuen harrerako erizainak. S.-k, badaezpada ere (zergatik badaezpada ere?, ez ote zioten sinetsiko, akaso?), psikologoaren txostenaren kopia bat eramane zuen, haurra zaintzeko baldintza psikikoak bete ez eta haurra adopzioan eman nahi zuela azaltzen zuena. Sinetsita zegoen bizitzari aurre egiteko moduan egongo zela erditu ondotik. Azken hilabeteetan, izan zuen denborarik gogoetarako. Erabaki bat hartua zuen, bere kasa: haurraz erdituko zen, baina hura sekula ez ikusteko baldintzapean. Egoera hartan, konponbiderik onena iruditzen zitzaion bientzat. Ez baitzuen izan abortatzeko aukerarik. Hori, edo, bestela, haurra itotzea lepoa bihurrituz.

\*\*\*

Izakia lo dagoelarik, hari begira dago S., eta F.-rekin oroitu da. Zagrebeko iheslari-esparruan erditu zenean, S. ere haren logelan zegoen. Zortzi emakume burdinazko literaz osaturiko logela mehar batean. F.-k, burko bat hartu, eta haur jaioberriaren gainean estutu zuen. Gogoan du neskato ttar bat zela. Odola ere garbitu gabe zeukan oraindik, eta batik bat horixe aurpegiatzen zion S.-k... Ondoko oheko emakumeak moztu zion zilbor-hestea, aitzo arrunt batez. F.-k indarrez estutu zuen burkoa haurren gainean. Haurra burkoaren azpian ezkutatuta geratzeraino. Hamar minuturen buruan, esan zuen: «Bukatu da». Ondoko emakumeak, orduan, gorputto maskala hartu, eta Unikonzum-eko plastikozko poltsa urdin batean sartu zuen. S.-k ez zuen jakin zer gertatu zen poltsa harekin. Akidura besterik ez zuen ageri F.-k aurpegian. Geroxeago, jaiki, eta berak garbitu zuen odolez zikinduriko burko-azala.

S.-k ere gauza bera egin lezake beharbada. Presio pixka bat, eta istant batean bukatuko zen dena, bai beraren oinazea, bai haurrena. Ninia bare-bare dago: ziurrenik, ez litzateke deusetaz ohartuko. Eskua jaitsi, eta kasik ukitu du. Haren azalaren epeltasuna sentitu

duelarik, bihotz-taupadek dardara batean jarri diote bularraldea. Kolpetik kendu du eskua, erretzeko beldurrez balego bezala.

\*\*\*

Ez, ezin egingo luke halakorik. Hainbeste jende ikusi du hiltzen, goragalea etortzen baitzaio pentsatze hutsarekin. Okerrena zera da, heriotzak berezko usaina duela. Baina ez da jendeak agoniarekin lotzen duen usain hori, oilo-ipurdia jartzen duen hori, baizik eta odol freskoarena, animalia-odolarena, haragi ustelarena, zahardadearena, gaixotasunarena, deskonposizioarena. Ez, ez da berezko heriotzaren usaina, baizik eta heriotza bortitz eta bat-batekoarena, norberak hilzorian dagoela sumatu baina horretaz erabateko kontzientziarik ez daukan une horrena. Gorputzak amaiera iritsia dela jakin arren burmuinak oraindik ere itxaropena baduen une horretan, heriozko beldurraren usaina dario pertsonari. Itxaropen faltsu horrek hilzorian den gorputzaren kontra talka egitean isurtzen da heriotzaren kirats hori, hain garratz, hain higuigarri. Noizbait halakorik bizi izanez gero, zaila da ahazten. Hila delarik, oso bestelako usaina dario pertsonari, astuna izateraino gozoa, goragalea eragiteraino ustela.

\*\*\*

Lehenago, iazkoa gertatu aurretik, buruan zerabilen egunen batean seme-alabak izatea. Orain, iruditzen zaio aspaldiko kontuak direla, beraren bizitzarekin ia zerikusirik ez duten pentsamendu urrunak. Dagoeneko ez dauka inongo segurtasunik; ezin da fidatu behinolako oroitzapenez. Garai bateko kontuak dira, inguruan zituen pertsonen bizitzak eta beraren amets eta erabakiek nola-baiteko lotura zuten garaikoak, hain urrutikoak denak ere.

Harrezkerotzik, baina, bizitza beste zerbait da berarentzat, identifikatu ezinezko zerbait. Edo, beharbada, imajinatu ezinezkoa. Berak ere ez daki nola deitu, nahiz eta badakien dagoeneko asmatua dutela hitz bat horretarako: gerra. Baina gerra izendatzaile komun bat da berarentzat, hainbat banakoren patua izendatze-ko izen kolektibo bat. Horixe baita gerra, pertsona horietariko

bakoitza, bakoitzari zer gertatu zaion, nola gertatu zaion, zertan aldatu zaion bizitza. Berarentzat, mundura ekarri behar izan duen haur hori da gerra.

\*\*\*

Haurdun zegoela jakin zuen egunetik, sekula ez du deus gorrotatu izaki hori bezainbat. Suediako ospitale batean ez balego, nork daki bizirik atera izango ote zen gorroto horretatik. Zaila baita bizirik ateratzea halako gorroto batetik. S.-rentzat berarentzat ere, zaila zen hura barnean zuela bizitzea. Gauetan, ohean alde batera eta bestera bueltaka ibiltzen zelarik, gorputz arrotz hura bere barnean mugitzen nabaritzen zuelarik, haien aurpegiak ikusten zituen bere gainean, gizon haien aurpegiak, haurraren aiten aurpegiak. Izenik gabeko gizon mozkor haienak. Ez daki zenbat ziren. Baina gogoan ditu bakarren baten begiak, aurpegiaren bat, ahotsen bat, haien eskuak, usaina, eta kiratsa, behin eta berriz. Denak izan zitezkeen haurraren aita.

Ametsetan agertzen zitzaizkion, etengabe. Hemen ere, Suedian, ez dute bakean uzten, maleta bat galdu eta gerora azaldu izan balitzaio bezala. Maiz aski, amesgaizto bera izaten du: oinez doa hiri ezezagun bateko kale batean barrena. Bat-batean, aurpegi ezagun bat ikusten du jendetzaren artean. Ziur dago gizon haientariko bat dela. Labana bat darama. Gizonarengana hurbildu, eta sabelean sartzen dio, hark aurpegia ongi ikusi diola segurtaturik. Labana sartzen dion bitartean, halako baretasun batez betetzen zaio gorputza; zorientasunez ere bai, beharbada. Baina harridura besterik ez du ikusten gizonaren begietan. Ez da ohartzen nor den, ez baita deusetaz gogoratzen, eta zur eta lur dago heriozko sastakada bat eman berri dion emakume ezezagunari begira. S. negarretan lehertzen da, amorruren amorruez, gizona ez baita konturatu bere biktima bat duela aurrean, mendekuak ez baitu inongo zentzurik horrenbestez.

\*\*\*

Gerora, bere barrenean hazten sumatu du izaki hori, haien fruitua. Tumore baten antzera. Konturatu zenetik, S.-k uko egin dio gorputz arrotz horri, bere borondatearen aurka barrenean ugaltzen ari zitzazkion zelula gaixo horiei... Nonbait irakurria zuen minbiziaren zelulak bisualizatuz lor zitekeela zelulok geraraztea. Baina tumorea lasterregi ari zen hazten. Begiak itxi, eta hantxe ikusten zituen zelulak, zelula arrotzak, etengabe ugaltzen, bere barrenak inbaditzen. Edukiontzia erraldoi bat balitz bezala ikusten zuen bere burua, zelula aseegin andana bat elikatzekeko besterik balio ez zuela. Irudi horrek ia erotzeraino sutan jartzen zuen.

Tumorea ondoan dauka orain, mirariren baten poderioz haur bihurturik. S.-ri zaila egiten zaio hori onartzea. Sekula ez du berearengan pentsatu haur bat balitz bezala, baizik eta gaitz bat balitz bezala, gainera kendu nahi izango zukeen zama bat balitz bezala, bere organismoak erazi nahi izango zukeen parasito bat balitz bezala. Ikaratzen da pentsatzean bere borondatearen kontra hazi zaiola barrenean zer hori azken bederatzi hilabete luzeotan. Eta, azkenean, berak nahi zuenaren kontra, umetokiko paretetara itsatsi zaiola, jaiola dela, bizirik iraun duela. Berak bezalaxe.

\*\*\*

Haurren zama gainera kendurik, bere gorputz oraindik unatuak lasaitu ederra hartu du. Baina erdibituta sentitzen da, eta horrek guztiz nahigabetzen du. Ez du sinesten bere gorputza berea duenik, bere borondatearen mende daukanik, gorputz hori orain... bera denik. Apika, hala bizi beharko du bolada batean, itxi ezinezko arrakala horrekin.

Zikin sentitu da berriz ere. Maiz aski gertatzen zaio. Mendekua-gosea bezain mingarria zaio. Bere eskuei begiratzen die, azazkal azpiko zoldari; besapeetako izerdi-usaina aditzen du; puska txiki ia gardenetan ezkatatzen zaio larruazala, bigarren larruazal bilakatua zaion zolda hori... Badaki sekula ez dela berriz erabat garbi egongo. Ez da urik bera garbitu dezakeenik. Ohetik altxatzeko ahalegina egin, eta komunera joan da. Geldi-geldi geratu

da gortina urdinaren atzean, ura aurpegitik behera isurtzen zaiola, luzaroan. Komunean ez dago bainuontzirik; gortina zintzilikatzeke zirkuluerdi metaliko bat eta ura husteko isurbide bat besterik ez. Plastikozko aulki batean eseri da, txorrotapean. Ur-tanta beroek bortizki kolpekatzen dizkiote sorbaldak eta bularraldea. Luxua iruditzen zaio ur kiskalgarriko dutxa luze bat hartu ahal izatea.

Iztartetik behera doakion odol-arrasto argiak ura tindatzen du. Zerbait penagarria eta astuna isurtzen da odolarekin batera, azken hilabeteetan barnean ezkutuan eraman duen zerbait. Urak ahazten laguntzen dio, barrendik garbitzen ariko balitz bezala.

\*\*\*

Bere burua ispiluan ikustean, ohartu da aurpegia ez zaiola aldatu. Ez zaio deus ere nabari; bisaia garbia du, orbanik gabea, arrunta. Zurbil samar dago; begi-zuloak dauzka, baina besterik ez. Bere buruari ispilu batean antsiaz erreparatu zion lehen aldian, Zagrebera iritsi berria zen. Komun kolektiboan zegoen; ederki oroitzen da. Ez zegoen bonbilla soil bat beste argirik, eta argi-ilun horiantz hartan egin zuen topo bere aurpegiarekin. Larruazal leun bera, axuri-begi berak, bekain zuzenak eta ezpain haragitsuak.

Hasieran ez zaio batere gustatu aldaketaren inongo arrastorik ez ikustea bere aurpegian. Nola liteke pasatutakoak pasatuta inongo arrastorik ez geratzea azalean, arrasto bakarrak barrenean geratzea? Egiaz ikusezinak al dira arrasto horiek guztiak? Ala interpretatzen jakitea da kontua? Orain, dena den, bere burua ospitaleko komunean ikusten duelarik, nahiago du inork ez deus nabaritzea. Sufrimenduaren ageriko aztarna guztiak desagertzea. Horrek babestuko du. Halako aurpegi xaloarekin, jendeari errazago egingo zaio gezurak asmatzea berari buruz.

Harro, aurpegirako kremaren ontzia ireki du. Zein gauza ederra den aurpegirako krema bat eta ispilu bat izatea berriz. Eta beraren aurpegia ispiluan islatzea berriz. Hori ote da etorkizuna?

\*\*\*



Noiz ohartu ote zen halere bazela etorkizuna? Apika, bere heriotzaz etsia hartu zuenean, heriotza hobe izango zela ohartu eta barrenean zerbait hautsi zitzaionean. Espero zuenaren kontra, etsipenak ireki zion etorkizunaren atea.

Amaitu da dena. Ahoz gora etzanda dago, begiak itxita. Burua alde batera. Ez du ikusi ere egin nahi haren aurpegia. Hori du defentsa bakarra. Minsor bat sentitu du, baina ez ditu begiak ireki. Ez da mugitzen. Ez du soinurik egiten. Soldaduak bular gainean paratu dio bere bota. «Begiratu hona!», agintzen dio. S.-k berarengana biratzen du burua, begiak ireki gabe. Oraindik ez. «Ireki ahoa!», agintzen dio berriz. S.-k obeditzen dio. Haren gernuaren zorrotada beroa nabaritzen du aurpegian. «Irentsi!», oihukatzen dio. «Irentsi!». Ez dauka beste irtenbiderik. Likido gazia irensten du. Iruditzen zaio ez dela inoiz bukatzen, eta hilik egon besterik ez du nahi.

\*\*\*

Gurpil-aulki batean eserita dagoen gizon bat ospitaleko etxartean dabil alde batera eta bestera, mantso. Haren ondoan doa, oinez, kapa urdina daraman erizain bat. Haize gorria dabil, Bosniako mendietakoa bezalakoa kasik. Hain bakarrik egon da azken segundoetan, etxartera jaitsi eta aulki horretan eseri nahi bailuke, ondoan norbait duela sentitzeko.

Dagoeneko beraren parte ez den eta horrenbestez ez dagokion izakiari begiratu dio. Haren etorkizuna ere ez dagokio berari. S.-k uste du ez duela inongo erantzukizunik harekiko, baina pozik dago mundura ekarri duelako, heriotza ez baizik bizi eman diolako. «Zein erraza den ahaztea heriotza dakarrenarengan ere uzten duela arrastoa heriotzak», pentsatu du S.-k.

Bat-batean, halako hertsadura bat sumatu du bularraldean. Kamisoia busti du. Esnea dariola dago. Eseri da, nahasirik; ez daki zer egin bere buruarekin. Ez zuen halakorik espero. Eskuoihal bat hartu, eta kamisoi azpian sartu du. Zer gertatuko da esne horrekin guztiarekin?